

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4134

AGINDUA, 2014ko irailaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, 2014-15 ikasturterako diru-laguntzetarako deialdia egiten da Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, mankomunitateetan edo horiek sortutako erakundeetan eta erakunde pribatuetan 2013-2014 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eman eta programa horiek finantzatzeko hezkuntza-hitzarmenik lortu ez zutenetan.

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarriak ezarpen-egutegi bat ezartzen du, eta, egutegi horren arabera, Lanbide Heziketaren Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programen ordeztuko, Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri behar da arian-arian, 2014-2015 ikasturteko aurrera.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egiaztatu du zaila dela Oinarrizko Lanbide Heziketa 2014-2015 ikasturtearen hasieran ezartzeko egin beharrekoak diren arau-aldaketak bultzatzea, eta ikusi du, era berean, jarraipena eman behar diela, bien bitartean, ikasketak uzteko arriskuan dauden ikasleei zuzenean zuzendutako neurriei. Ez da oinarrizko arau-garapenik egin Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak ordeztuko dituen Oinarrizko Lanbide Heziketari buruzko proposamen bat prestatzeko; gainera, ikasle horien ikastetxeentzako diru-laguntzetarako deialdiak tramitatzen hasi behar dira, 2014-2015 ikasturtearen hasieran izan ditzaten programak emateko behar dituzten baliabideak; beste aldetik, ikasleak matrikulatzeko prozedura ezartzen duen agindua tramitatu behar da, eta planifikazioa datorren ikasturteko behar bezainbesteko aurrezapenez ezarri behar da. Gorabehera horiek guztiak aintzat hartuta, beharizan horri erantzun egin behar zaio, harik eta Oinarrizko Lanbide Heziketa ezartzen duen errege-dekretua argitaratzen den arte, dekretu horrek txertatuko baitu lanbide-heziketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren eremuan.

Hori horrela, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, apirilaren 1eko 47/2014 Dekretuaren bidez (2014ko apirilaren 7ko EHAA), aldatu egin du urriaren 16ko 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa, eta artikulua bat erantsi dio, Prestakuntza Iragankor Integratuko programei buruzko artikulua bat.

Prestakuntza Iragankor Integratuko programek ordeztuko dituzte, 2014-2015 ikasturtean, Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programak, harik eta Oinarrizko Lanbide Heziketa ezartzen den arte. Azken ikasturteetan Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eman dituzten toki-erakundeetan, erakunde pribatuetan eta hezkuntza-zentroetan emango dira programa horiek.

Horrenbestez, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz –legegintzako dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta diru-laguntzak emateko araubide orokorra arautzen duena–, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

2014ko urriaren 6a, astelehena

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Diru-laguntzetarako deialdia egitea Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, mankomunitateetan eta haiek sortutako erakundeetan nahiz erakunde pribatuetan 2014-2015 ikasturtean Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak garatzeko, betiere 2013-2014 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eman bazituzten agindu honetako I. eranskinean azaltzen diren oinarriekin bat etorritz, eta programa horiek finantzatzeko hezkuntza-hitzarmenik lortu ez bazuten.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan xedatzen ez diren alderdietan, betetzekoak izango dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta laguntza eta diru-laguntza publikoei buruzko araudia.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Baimena ematen zaio Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariari, agindu hau aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibideak emateko.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 24a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

OINARRIAK, HONAKO DEIALDIA HAU ARAUTUKO DUTENAK: 2014-2015 IKASTURTERAKO DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA, PRESTAKUNTZA IRAGANKOR INTEGRATUKO PROGRAMEN GARAPENA FINANTZATZEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETAN, MANKOMUNITATEETAN NAHIZ HAI EK SORTUTAKO ERAKUNDEETAN ETA ERAKUNDE PRIBATUETAN 2013-2014 IKASTURTEAN HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMAK EMAN ETA HORRETARAKO HEZKUNTZA-HITZARMENIK LORTU EZ ZUTENETAN.

Lehenengo.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da 2014-2015 ikasturtean Prestakuntza Iragankor Integratuko Programen garapena finantzatzera bideratutako diru-laguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, mankomunitateei eta haiek sortutako erakundeei nahiz erakunde pribatuei –zehazki, deialdi honen bigarren oinarrian aipatzen direnei.

Bigarrena.– Laguntzen erakunde onuradunak.

1.– Honako hauek izan daitezke deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen erakunde onuradunak:

a) Udalak.

b) Mankomunitateak.

c) Udalek edo mankomunitateek sortutako erakundeak.

d) Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak finantzatzeko hezkuntza-hitzarmenik lortu ez duten erakunde pribatuak.

Betiere, 2013-2014 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eman badituzte.

d) idatzi-zatiko erakundeek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Hirugarrena.– Diru-baliabideak eta laguntzen diru-kopurua.

1.– Guztira, 7.980.000 euro bideratuko dira agindu honek deitzen dituen diru-laguntzak ematera, 2014-2015 ikasturtean.

2.– Zenbateko hori handitu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen zenbateko totala kontuan harturik, baldin eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Diru-laguntzen ebazpena eman aurretik egin beharko da aldaketa hori. Zenbatekoa aldatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da horren berri, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez.

3.– Prestakuntza Iragankor Integratuko Programei aurrekontu gisa 2014-2015 ikasturtean aplikatuko zaien modulua hirugarren oinarri honetako 4. paragrafoan zehazten da.

2014ko urriaren 6a, astelehena

4.– Laguntzen gehieneko diru-zenbatekoak hauek izango dira, eta honela banatuko dira:

LANBIDE-FAMILIA	DIRU-LAGUNTZA GUZTIRA
Lanbide-profila	
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	
Oinarrizko administrazio-prozesuetako laguntzailea	71.587,07
NEKAZARITZA	
Lorezaintzako eta loradendako laguntzailea	82.748,40
Basoak ustiatu eta mantentzeko jardueretako langilea	79.299,91
ARTE GRAFIKOAK	
Erreproduktzio grafikoko langilea	71.957,74
MERKATARITZA ETA MARKETINA	
Saltegiko eta biltegiko laguntzailea	73.526,12
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	
Estandura arinetako igeltserotzako langilea	82.264,13
Plaka eta igeltsu ijeztuko instalazioetako estaldura jarraituetako langilea	83.193,91
Pinturako, paperez-tadurako eta eraikuntzako beste akabera batzuetako langilea	75.383,81
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	
Instalazio elektrikoetako langilea	76.429,13
FABRIKAZIO MEKANIKOA	
Mekanizazioko langilea	83.299,71
Langile galdaragilea/tutugilea	80.242,87
Soldadurako langilea	80.465,28
Metal-eraikuntzen arotzeriako eta muntaiako langilea	80.064,70
OSTALARITZA ETA TURISMOA	
Sukaldeko/zerbitzuko langilea	78.935,47
Gozogintzako eta okintzako langilea	75.755,18
Turismo-ostatuak garbitzeko eta zerbitzuak egiteko langilea	73.273,55
IRUDI PERTSONALA	
Ile-apainketako laguntzailea	74.088,35
Estetikako laguntzailea	74.463,70
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	
Elikagaien industriako, harategiko eta urdaitegiko langilea	76.097,31
INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK	
Mikroinformatika-tresneria mantentzeko langilea	71.762,54
INSTALATZE ETA MANTENTZE LANAK	
Iturgintzako langilea	75.704,34
Hotz-instalazioetako langilea	75.809,14
Berokuntzako eta ur bero sanitarioko instalazioetako langilea	76.862,91
Girotzeko eta aireztatzeko instalazioetako langilea	77.012,77
KIMIKA	
Poliesterraren eta beira-zuntzaren lehen transformazioetako langilea	77.578,49
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA	
Zur-arotzerian fabrikazioko, muntaiako eta akabera-lanetako langilea	82.825,26
GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK	
Mendekotasuna duten pertsonentzako etxeko jardueretako eta oinarrizko zaintzetako laguntzailea	71.387,83
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	
Garbitegiko eta konponketetako langilea	78.660,90
Modako eta etxeko ehungintzako langilea	78.539,38
Altzariak eta saltokiak tapizatze langilea	78.403,80
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	
Ibilgailuak konpontzeko langilea	83.254,13
Karrozeriako langilea	80.505,31

Laugarrena.– Izena ematea eta taldeak osatzea.

1.– Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak doakoak izango dira ikasleentzat, eta izena ematea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak erabakitako epeetan egingo da, programa horiek garatuko dituen udalak, mankomunitateak, erakunde publikoak edota erakunde pribatuak erabakitako tokian.

2.– Ikaslearen datuak Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak adierazitako aldiaren barruan grabatu beharko dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ondorio horretarako finkatutako aplikazioan.

Jarduerei ekiteko, ezinbestekoa da Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak ikasleen zerrendak onartzea eta zerrendetako datuak egokiak izatea.

3.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak taldeak osatzeko baimena emango du, matrikularioa egiteko epe arrunta ixteko egunean (uztailaren 1etik 15era, biak barne) gutxienez 12 ikasle badaude 1. kurtsoan. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleek parte hartzen badute, taldearen ezaugarriek egokituko zaie ikasle-kopurua.

Profil bereko 1. kurtsoko bigarren talde bat osatu ahal izateko, gutxienez 30 ikasleko matrikulario izan beharko da.

Bosgarrena.– Laguntzak eskuratzea.

Deialdi honetako diru-laguntzak eskuratzeko, eskabide bat aurkeztu behar dute erakunde interesdunek, deialdian adierazitako moduan.

Seigarrena.– Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabili behar dituzte eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

Honako egoitza elektroniko honetan zehazten da nola izapidetu eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak: <https://euskadi.net/dirulaguntza/2014/pfti/y22-izapide/eu/>

Eskabidea bitarteko elektronikoetatik egin ondorengo izapideak hemen egin behar dira: «Nire kudeaketak», <https://euskadi.net>

Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Prozedurako izapideetan, erakundeak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

Zazpigarrena.– Eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

Diru-laguntzaren eskabidearekin batera, Prestakuntza Iragankor Integratuko Modulu/profilen eskabidea formularioa aurkeztuko da, eta formulario horretan adieraziko da zer profiletarako eskatzen den laguntza eta zenbat talde eskatzen diren.

Diru-laguntzaren eskabideak eta dokumentazioak ez baditu deialdi honek araututako betekizunak betetzen edo horien edukia behar bestekoa ez baldin bada, 10 eguneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsak osatu edo zuzentzeko, eta adieraziko zaio, akatsak osatzen edo zuzentzen ez baditu, ezetsizat joko dela haren eskabidea. Horretarako, eskabidearen gaineko ebazpen berariazko bat eman eta jakinarazi beharko du Administrazioak, hala ezarritako baitago Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan.

Zortzigarrena.– Deialdiaren organo kudeatzailea.

Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi hau.

Bederatzigarrena.– Laguntzak ematea eta laguntzen zenbatekoa.

Lehia-prozeduraren bidez erabakiko da diru-laguntzak ematea, hurrengo atalean ezarritakoari jarraituz.

1.– Epe barruan aurkeztutako eskabide guztiei emango zaizkie diru-laguntzak, baldin eta agindu honek ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte eta deialdi honen laugarren oinarrian taldeak osatzeko zehazten den ikasle-kopurua bete dela egiaztatzen badute matrikulazio-epe arruntaren amaieran.

2.– Erakunde horiei emango zaien laguntza ezingo da handiagoa izan 2013-2014 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen lehenengo kurtsoa emateko baimendutako talde kopurua eta lanbide-profil kopurua baino. Deialdian sartuko dira, halaber, 2013-2014 ikasturterako baimendutako taldeak, baina eskatutako ikasle ratioa ez betetzeagatik eskaintza osatu ez zutenak.

3.– Erakunde onuradunei diru-laguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei amaiera ematea.

4.– Nolanahi ere, diru-laguntza jasoko bada, diru-laguntzaren xede diren ikasle-taldeen kopurua osatu beharko da nahitaez.

5.– Deialdi honetan aurreikusitako aurrekontua onartutako eskariei erantzuteko behar bestekoa ez bada, erakunde eta programa bakoitzari taldeka eta mailaka esleitutako zenbatekoa proportzio berean murriztuko da, onartutako aurrekontuari egokitu arte.

6.– Deialdi honetan aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea Lanbide Heziketako sailburuordeari dagokio.

7.– Ebazpen horrek erabakiko du diru-laguntzak ematen diren edo, hala badagokie, ukatzen diren. Diru-laguntza ematea ebazten bada, adierazi beharko da zein den erakunde onuraduna, zein diren diruz lagundutako kurtsoak eta zenbateko diru-laguntza emango den horietako bakoitzarentzat. Eskabidea ezesten bada, berriz, horren arrazoiak adieraziko dira.

8.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Hamargarrena.– Erakunde eskatzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.

1.– Laguntzak esleitu zaizkien erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, hala arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak.

2.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua betez, betebeharrak hauek egiaztatuko dira eskaeran, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

– Ez dela jasotzen ari helburu bererako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

– Eskaera egiten duen pertsonak edo erakundeak ez du izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, eta ezta diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrena).

– Halaber, erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpenean adierazi behar du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta bete egiten dituela diru-laguntza hauen onuradun izateko indarrean dauden araudiek ezarritako betekizunak.

Hamaikagarrena.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Erakunde onuradunek ez badiote berriaz uko egiten diru-laguntzari hura eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean, diru-laguntza onartu dutela ulertuko da.

2.– Diru-laguntza zertarako eman den, xede edo helburu zehatz horretarako erabiltzea.

3.– Aldez aurretik baimena eskatu beharko dute, eta, ondoren, hirugarrenekin sinatutako kontratua aurkeztu Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzan, agindu honetako hamahirugarren oinarriaren 2. atalean aurreikusitako kasuetan, eta, betiere, onartutako diru-laguntzaren bigarren ordainketa gauzatu baino lehen.

4.– Irakasleen lan-baldintzak –arlo juridikokoak zein ekonomikokoak– egokiak izango dira, eta lan-legerian ezarritakoa bete beharko dute. Horrek ez luke ekarri behar erakunde onuradunetako gainerako langileekiko diskriminaziorik.

5.– Bestalde, edukien metodologia integratzaileak erabiltzeko printzipioa aintzat hartuta eta ikasleen jarraipen eta arreta pertsonalizatuaren printzipioa kontuan izanda, programa hauek emateko baimenduta dauden erakundeek saiatu behar dute talde bakoitzean esku hartzen duten irakasleen kopurua ahalik eta txikiena izatea.

6.– Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak programa emateko erosi duen ekipamendua, bestalde, programa horretako jardueretarako soilik erabiliko da. Materiala erosi ahala, ekipamenduari buruzko inbentario espezifikoa jaso beharko da. Ekipamendu hori inori lagatzeko edo, hala bada, gogio, besterentzeko, berriz, beharrezkoa izango da Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta dagokion erakundearen adostasun adierazia eskuratzea.

7.– Hezkuntza Ikuskaritzari helarazi egin behar zaio ikastetxean garatzen diren programen inguruan eskatzen duen informazio guztia.

8.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman egin beharko zaie deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzen gainean eskatzen duten informazio guztia.

9.– Erakunde eskatzaileak honako gastu hauek hartuko ditu bere gain: programa egiteko lokalenak, lokal horiek konpontzeko eta kontserbatzeko lanenak, eta ikasleentzat aseguru bat kontratatzearenak (eskola-aseguruak jasotzen dituen prestazio guztiak eskaini beharko ditu).

10.– Ikasturteko lehenengo hiruhilekoan, erakunde onuradunek ikasturterako jarduera-proiektua edo hasierako memoria aurkeztu beharko dute, honako hau barne hartzen dutela:

a) Irakatsiko den lanbide-profil bakoitzari dagokion curriculum-proposamena. Proposamen horretan alderdi hauek zehaztuko dira:

– Gaitasunen esparruan, nolako helburuak lortu behar dituzten ikasleek.

- Irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduera adierazgarriak.
 - Ikasleen aurrerabidea ebaluatzeko prozedurak eta irizpideak.
- b) Jarduera osagarriak.

Ikastegi bakoitzak gordeko du dokumentazio hori; zuzendaria arduratuko da horretaz, eta Ikuskaritzaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gainerako zerbitzuen eskura egongo da.

11.– Irakaskuntza-jardueraren antolamenduari buruzko oinarritzko datu guztiak bete behar dituzte erakundeek: irakaskuntza-egutegia eta EJD. Era berean, <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak> aplikazioaren bidez, eskatutako datuak bete direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dute.

12.– Ikasturtea amaitu eta 2 hilabeteko epean, programaren emaitzak ebaluatuko dituen amaierako memoria egin beharko dute erakunde onuradunek, honako alderdi hauek jasoko dituen:

- Programaren garapenaren laburpena eta ikasturteko lehenengo hiruhilekoaren hasierako memoriari eta diru-laguntza eskatzeko egindako programaren proiektuari egin zaizkien aldaketak.
- Parte hartu duten gazteak, izandako bajak eta zergatiak.
- Estatistika-laburpen bat, honako hauek zehaztuko dituen: ikasleek nolako ezaugarriak dituzten, nondik datozen eta zein ikasketa-maila duten.
- Taldeak eta ikasle bakoitzak lortutako helburuak. Horretarako, oinarritzat hartuko dira programaren proiektuan eta hasierako memorian aurrez ikusitako helburuak.
- Ikasleak lan-munduratzeari dagokionez eta/edo maila akademikoari edo prestakuntzakoari dagokionez lortutako emaitzen estatistika-laburpena.
- Emaitzen analisia, jarduera-proiektua egokia ote den zehazteko eta behar dituen aldaketak finkatzeko.

Ikastetxean gordeko da memoria hori, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

Hamabigarrena.– Emandako diru-laguntzak justifikatzeko araubidea.

Diru-laguntza jaso duen jardueraren aurrekontu osoari dagozkion gastuen agiri bidezko justifikazioa egiteko, irakasleei dagozkien gastuak barne, Justifikazio Kontu Erraztua inprimaki normalizatua bete beharko da. Helbide honetan dago eskuragarri: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/pfti/y22-izapide/es/

Inprimaki horretan, zehatz-mehatz zehaztuko da dokumentuen zerrenda, eta honako hauek adierazo dira: data, kontzeptua, guztirako zenbatekoa, egotzi daitekeen zenbatekoa (halakorik behar izanez gero) eta ordainketa-data. Jatorrizko dokumentuak gorde behar dira (irakasleen nominak barne), etorkizunean egiaztatzeko. Diru-laguntza eman duen organoak, lagin-teknika bitartez, egoki irizten dituen egiaztariak egiaztatuko ditu, ziurtatzeko diru-laguntzaren helburuak bete direla.

Inprimaki horretan bertan, halaber, Erantzukizunpeko Adierazpena dago, eta horren bitartez, ikastegiak egiaztatuko du arestian aipatutako azken memoria bete duela.

Artikulu honetan adierazten den dokumentazioa honako helbide honen bitartez aurkeztuko da: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

Hamahirugarrena.– Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.

1.– Laguntzen onuradunek diruz lagundu diren jarduerak kontratatu ahal izango dituzte. Kontratazioa gertatu dela ulertuko da hirugarren batzuekin hitzartzen badute jarduera osorik edo partez gauzatzea. Onuradunak hirugarren batzuekin azpikontratatzeko duen jarduera hori, gainera, diruz lagundutako jardueraren % 100era irits daiteke.

2.– Onuradunak hirugarren batzuekin kontratatzen duen diruz lagundutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak baimena emango du alde aurretik, agindu honetako hamaikagarren oinarriaren 3. paragrafoan zehaztutako moduan.

– Kontratua idatziz egingo da.

3.– Enpresa kontratatuak onuradunaren mende soilik egongo dira, eta horrek hartuko du bere gain diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa, Administrazioaren aurrean.

4.– Udal, mankomunitate eta horiek sortutako erakundeek eta enpresa kontratatuen artean sinatutako kontratua idatziz jasoko da, eta Administrazioaren esku egongo da.

5.– Azpikontratatuak enpresak ezin izango dira Agindu honetan adierazitako debekuetako bakar baten pean egon.

Hamalagarrena.– Babesa.

Erakunde onuradunek berriaz jasoarazi beharko dute diruz lagundutako jarduera guztietan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa dutela, baldin eta jarduera horiek dibulgatu, hedatu edo, hala badagokio, argitaratu behar badira.

Hamabosgarrena.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da.

Lehen ordainketa diru-laguntzaren % 30 izango da, eta hamaikagarren oinarriaren 1. paragrafoan adierazitako epean egingo da, berriaz uko egin ez bazaio.

Bigarren ordainketa diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60 izango da, eta bigarren hiruhilekoaren hasieran egingo da, hamaikagarren oinarriko 10) eta 11) paragrafoek arautzen dutena beteta dagoenean.

Hirugarren ordainketa, azkenik, % 10ekoa izango da, eta ikasturtearen bukaeran egingo da, hamabigarren oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu eta gero.

Hamaseigarrena.– Ebazpena aldatzea eta berrikustea, eta diru-laguntza itzultzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok berekin ekar dezake ebazpena aldatzea, betiere diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Testu Bategina) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3.– Jasotako diru-laguntza gehi aplikatzekoak diren interesak itzuli beharko dira, baldin eta araudi horretan aintzat hartzen diren honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada, eta bereziki honako hauek:

- Diru-laguntza eman den xederako erabiltzen ez bada.
- Agindu honetan eta hura garatuko duten ebazpenetan xedatutakoa betetzen ez bada.
- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako diru-laguntzen onuradunei dagokien betebeharretakoren bat betetzen ez bada.

Hamazazpigarrena.– Administrazioaren isiltasuna.

Deialdiaren agindua indarrean jarri eta sei hilera ez baldin bazaie hartan parte hartu duten erakundeei jakinarazi diru-laguntzen esleipenari buruzko ebazpenik, erakunde interesdunek ezetsizat jo ditzakete haiek egindako eskabideak, hala ezarrita baitago Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan. Ebazpen hori, berriz, PLATEA-e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoaren bidez jakinaraziko zaie parte hartzen duten erakundeei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta emango da berorren berri.

Hamazortzigarrena.– Datu pertsonalen babesa.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Izaera Pertsonaleko Datuetarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoari jarraituz, deialdi hau bideratzean bildutako datu pertsonalak Hasierako Lanbide Kualifikazioko ikasleen matrikulazioaren fitxategian barne hartuko dira –parte-hartzaileek baimena eman dute datu horiek tratatu eta argitara emateko–. Fitxategi horren xedea da diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea eta deialdian parte hartzen duten pertsonen deialdiaren garapenaren berri ematea. Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna. Lege horretan adierazitako sarbide-, zuzentze-, eza-batze-, eta aurkatze-eskubideak baliatzeko, Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzara jo beharko da; horretarako helbidea hau da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.